

Zebarri

5alea 2002ko Ekaina
Etxebarriko Udal Euskaltegiko Ikasleek egina

Laster 10 urte



Etxebarriko Udal
EUSKALTEGIA

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK
CURSOS DE EUSKERA EN VERANO

ESKAINZA
MINTZAMEN lantzeko
IKASTAROA
Uztailaren 1etik 24ra

MATRIKULATZEKO EPEA Ekainaren 10etik 28ra

Bekosolo Parkea, z/g • 48450 ETXEBARRI
Tel./Faxa: 94 426 28 02 • etxebarri@euskalnet.net



Etxebarritar agurgarriok:

Zuen aldizkarirako zertxobair idazteko eskatu eta egokia iruditu zait Etxebarriren orain eta etorkizunari buruzko zerbañt aukeratzea, eta horretarako aurtengo aurrekontuaren laburpentxoak eta diru horrekin hasiko diren lanen ondorioak azaldu nahi dizkizuet.

Etxebarriko udalbatzak 2002ko ekitaldi honetan 2765 milioi pezeta kudeatuko ditu. 1800 milioi baino gehixeago urbanizazio lan eta kultur eta kirol instalazioak egiteko izango dira.

Lan hauetako asko, dagoeneko hasita daude eta horren ondorioz, gure herria zulatzen ari diren makinak asko eta asko dira, lurra eta abar garraiatzen dituzten kamioak asko diren modu berean eta jasan behar dugun zarata eta hautsa ere ugaria da. Lan hauen amaieran izango dugun erosotasun eta bizi-kalitateak ordainduko ahal du etxebarritarrok erakusten ari garen pazientzia !

Adibide legez jar ditzagun martxan dauden San Antonioko PERIaren urbanizazio lanak, tontorreko parkea, futbol zelaiaren handitzea eta elizaren aurreko plaza, urte bete baino lehen amaituta ikusiko ditugu eta.

300 milioi bideratu ditugu astialdi eta kirol gune berriaren lehenengo urterokoarentzat eta Lezama-Legizamon eta industrialdea metroaren geltokiarekin elkartzeko eraikiko den pasabidearentzat 50 milioi.

Udaletxearen kanpoko eta barruko birmoldaketarako 25 milioi gorde ditugu.

Arestian aipatutako guztiak eta hilabete gutxi barru gauzatzen hasiko diren Amezola eta Uribarriko zatikako egitasmoen urbanizazioek gure herriaren itxuraldaketa garrantzitsua ekarriko dute 2004ko udaberrian metroa heldu baino lehen.

Gertu izango dugu prest herritarrak harrituko dituen infografia bat (urte batzuk barru herria zelan geratuko den erakusten duen argazki-maketa bat). Bertan laster batean herri moderno eta funtzionala izango garela ikusi ahal izango da berdegune ugarirekin eta kultur eta kirol instalazio askorekin.

2002ko ekitaldiari dagokion aurrekontu honi buruzko beste datu aipagarri bat Kultura Arloak aurtan 126 milioi kudeatuko dituela da eta beste 70 kiroleterako. Era berean herrialde azpigaratueterako elkartasun fondorako 5 milioi zuzenduko ditugu herrialde behartsuenei laguntzeko egitasmo ezberdinen arteko lehiaketa bidez.

Euskararen sustapenerako 47 milioi erabiliko dira. Alde batetik euskaltegiaren 39 milioiko aurrekontua eta bestetik euskara zerbitzuak 7,8 milioi.

Udaltzaingoan bi langile gehiago egongo dira, aurreko urteetan izan diren jubilazioei, populazioaren handitzeari eta hirugarren txanda berriro ezartzeari modu egokian erantzuteko asmoz. Gaueko txanda kentzea Ertzantzaren zaintzaren areagotzearen ondorio zen baina ezin izan du bere horretan jarraitu, ertzainak eskolta lanetara bideratu dituzte eta.

Era berean Kultura-Laguntzaile bt kontratatzea aurrikusten da Kultur teknikariari laguntzeko eta Idazkaritza laguntzaile bat herritarrari lehiatila bakarrean hobeto eta azkarrago erantzun ahal izateko.

Pedro Lobato - Alkatea

**ZER USTE DUZU ETXEBARRIKO
ETXEBIZITZAREN EGOERARI BURUZ?**

CARLOS GARCIA / 21 urte - Ikaslea

Nire ustez ematen ari den ezaugarria masifikazioa da. Ondo dago zenbait pisu eraikitzea, auzoko gazteen etorkizunari begira batez ere, baina horrek ez du esan nahi eraikitako etxebizitza kopuruarekin ados nagoenik.

ANTONIA GARCIA / 49 urte - Etxekoandrea

Niretzat pisuak oso garestiak dira. Bikote gazte batentzat eskuraezinak direla uste dut eta hori arazo bat da.

CESAR CACHORRO / 59 urte - Autonomia

Herria beste bizimodu bat eta beste maila bat lortzen ari da. Gure herria Bilbo ondoan dago eta horregatik da hain erakargarria, eta hori erakusten dute pisuen prezioek ere.

JUAN JOSE CALVO / 48 urte - Informatikaria

Azken urteotan Etxebarriko etxebizitza asko hobetu da. Etxe bat egin baino lehen dena hartzen da kontutan: alkantarilak, errepideak, argiak, saneamendua... Baina orain etxe hauek oso garesti daude, Etxebarrin etxe bat erosteak abantaila asko duelako, ondo komunikatuta, Bilbotik 5 kilometrotara. Hala ere esan nahi dut San Antonion etxe asko egingo dutela eta hara joateko errepidea oso esutua dela.

ESTIBALIZ MURGIA / 30 urte - Idazkaria

Azken urteetan etxebizitzaren prezioa gehiegi igo da eta arazo larri bihurtu da. Dena den jende berri asko etorri da herrira eta honek alaitasuna ekarri du. Bestalde egia da, dauden denda, supermerkatu eta aisialdirako guneak urri gelditu direla honenbeste jenderentzat eta horrek konponbide arina eskatzen duela.

BEGOÑA CIRIZA / 33 urte - Etxekoandrea

Etxebizitza gehiegi egin da eta prezio altuegia dute. Eraikinen altuerak ere desberdinak dira eta oso itsusi geratzen da. Gainera babes ofizialekoak urriak dira 35 urtetik gorako jendearentzat. Alokairuetan ere eskasia nabaritzen da eta daudenak oso garesti.

Etxebarrin, EUSKARAZ?

Gaur egun Euskal Herrian euskararen erabilera gero eta hedatuagoa da. Baina badago hainbat leku non gure hizkuntza hitz egiteko gero eta oztopo gehiago dauden. Momentu honetan bizi naizen herriaren egoerari buruz, herba egiteko unea heldu da.

Etxebarri deitzen da herria eta zortzi mila biztanle inguru dauka. Aspaldian kanpotar asko jaso zuen herria denez, euskararen erabilera eta Euskal Herriko kultura apurka-apurka desagertuz joan da.

Egoera honi buruzko kritika bat egin behar delakoan nago. Arestian aipatu dudan bezala gure hizkuntzaren kontrako jarrera, nahikoa nabarmendua dela pentsatzen dut. Argi dago zer eragin duen kanpoko jendearen etortzeak, baina hori ez da benetako arazoaren mamia, jende honek errespetatzen ez duena baizik. Askotan oso barregarria suerta daiteke; Galizia, Andaluzia edo/ta Espainako edozein tokiko pertsona bat hona etorri denean, euskaldunok pertsona hauekin moldatzeko premia. Hau da, bera Euskal Herriko ohituretara moldatu beharrean, geu gara hen ohituretara moldatu behar dugunok. Noski, ez dut eskatzen Euskal Herriko arazoa konpontzen laguntzeko nahiz eta hori egokiena izango litzatekeen, baina mesedez ez dezatela apurtu guretzat eraikitzea hain zaila izan dena. Ni Galiziarra joango banintz ez nuke nire hizkuntza inondik inora inposatuko, hantxe dagoena errespetatuko nuke ziurrenik.

Bestetik esan gura nuke hainbeste hitz egiten dudanari buruzko jende mota horrek zer pentsatzen duen euskaraz hitz egiten ikustean. Izan ere, herri honetan euskalduna izatea eta Euskal Herria maitatzeak terrorismoaren alde egotea esan nahi du. Alde batetik ulergarria izan ahal da, izan ere, edozein tabernatara sartzean topatzen den lehenengo eta egunkari bakarra "El Correo Español" da edo bestela burua altxatuz gero telebistan Maria Teresa Campos-en saioa ikusteko aukera izango dugu.

Hau guztiau dela eta, kostatu egiten da euskaldun edo euskaltzale bat Etxebarrin zoriotsu sentitzea. Eta orain nire galdera: Zer gertatuko da hurrengo belaunaldietan? Euskararen alde lan egiten ari den jendeari lana erraztuko zaio?

Bigarren zatia... hogeitun urte barru.

*Xanti Pérez,
Etxebarritarra eta euskalduna.*

KONEKTA ZAITEZ !!

5. urratseko ikasleak gara eta KZ guneari buruzko informazioa jakin nahi dugu. Horretarako CIMEra joan gara bertako arduradunekin hitz egitera.

CIME 1993an sortu zen, baina lehen IMI deitzen zen. Lana aurkitzeko oso inportantea da informatikari buruzko ezagutzak edukitzea, horregatik CIMEk ematen digu ikastaro horiek egiteko aukera.

Hasieran, arduradun bakarra zegoen baina gero eta lan gehiago zeukatenez, plantilla handitu egin zen. Gaur egun, CIMEk bi langile ditu, Manu eta Loren, eta KZ guneak arduradun bakarra, Susana.



KONEKTA ZAITEZ Eusko Jaurlaritzak internet-erako sarbidea eta formazioa dohainik eskaintzen duen programa bat da. Hiru etapa dauka:

- Lehenengo etapa ordenagailua erostea da: Eusko Jaurlaritzak, bankuek eta aurrezki kutxek dirulaguntza ematen dute ordenagailua erosi ahal izateko.
- Bigarren etapa zentroak irekitzea eta interneta ikastea da: Eusko Jaurlaritzak, udaletxeek eta EUDELeK zentroak zabaltzen dituzte Euskal Herriko herri desberdinetan.
- Hirugarren etapa interneta lantegietan nola erabil daitekeen zehastea da.

Orain bigarren etapan gaude. Etapa honen barruan hiru aukera dauzkagu:

- 1- Internet-en nabigatzera hurbil gaitzke KZ gunera. Edozein zalantza argitu edo galderaren bat egin nahi badugu tutore bat laguntzeko prest izango dugu.
- 2- Prestakuntza ikastaroren bat egiteko aukera ere badaukagu. Hiru maila desberdin daude:
 - a) Oinarrizko ikastaroa: 6 orduko iraupena du. Bertan web orri batera nola sartu, buskadoreak eta posta elektronikoa nola erabili ... ikasten da.
 - b) Ikastaro aurreratua: 16 orduko iraupena du eta Egailanek ematen du. Kurtso hau sakonagoa da.
 - c) Seminario espezifikoa: ordu bat edo bi ordu irauten dute, adibidez euskaltegirako "Euskara Ziberespazioan" ikastaroa antolatu zuten.
- 3- Auto-prestakuntzarako ikastaroak ere eskura izango ditugu maila guztietarako eta praktikak egiteko aukerarekin.

Konekta Zaitetz Etxebarrin orain dela sei hilabete hasi zen eta bi urte iraungo du. Susanak esan duenaren arabera, "erantzuna oso ona izan da, nahiz eta Etxebarri herri zaila den, jendeari asko kostatzen zaiolako animatzea. Gazteak etortzen dira gehien bat nabigatzera baina gure helburua ordenagailua erabiltzen ez dakitenak erakartzea da. Hau da: erretiratuak, etxeko andreak, eta abar."

Hemen KZri buruzko informazioa aurkeztu dizugu; besterik jakin nahi baduzu zoaz CIMEra dudarik gabe eta **KONEKTA ZAITEZ!!**


Ordutegia hauxe da:

Goizez: 10:00etatik 14:00etara
Arratsaldez: 16:00etatik 20:00etara

KUKULLAGAKO PETANKA KLUBA

Arratsaldero ikusten ditugu Kukullaga inguruan petanka-bolekin jolasean. Eta jolas horren gorabeherak jakin nahian hara joan gara geure galde-sortarekin. Begira zer kontatu diguten.

Noiz sortu zitzaizuen petankarako zaletasuna?
Petanka jokoak izatez, Frantzian du jatorria. Gure herrian 1999an sortu zen ideia, hiru petanka-zale elkartu zirenean. Alkatearengana joan ziren proposamen batekin: petanka-pista bat egitea sasia zegoen leku batean. Udalak egitasmoa onartu zuen eta horrela, lau pistako zelaia egin zen, aurrerantzean handituko zena.



Zergatik praktikatzen duzue petanka?

Guretzat hobya da. Honetan trebetasuna askoz gehiago lantzen da indarra baino. Horrexegatik kirol aproposa da adin guztietarako, batez ere helduentzat. Gustatuko litzaiguke gazte-taldea sortzea, momentuz gazteak ez baitira animatzen.

Nola zabaldu da zaletasuna Etxebarrin?

Petanka-zaleak jokoan zebiltzala ikusita, jendea poliki-poliki animatzen hasi zen, eta hobya zabalduz joan zen. Orain 40 federatu gara, gehien-gehienak herrikoak bertakoak.

Zein da zuen helburua petanka praktikatzen duzuenean?

Denbora ematen dugu, kirola egiten dugu, aire librean gaude... gure taldean badago jendea musean egiten zuena eta orain musa(eta taberna-zuloa) utzita petankan dabilena. Baina ez pentsa, dirua galdu ere egiten dugu, bidaiak ordaindu behar ditugu geure poltsikotik eta.

Dirulaguntzarik jasotzen duzue?

Udalak dirulaguntza ematen digu zelaien mantenimendurako, eta horretaz aparte urtean zehar pistak konpontzeko kamioikada harria behar badugu bidali egiten digu, eta txapelketan behar diren komun publikoak ere ipintzen dizkigu. Freddy hanburgeseriak kamisetak ematen dizkigu. Hala ere, hau ez da nahikoa gastu guztiak kubritzeko. Esate baterako, federatuok kuotak ordaindu behar ditugu jolastu nahi badugu, gainera federatuon txandala ordaintzen dugu, eta jolastera kanpora bagoaz bidaia, janaria eta ostatua gure poltsikotik ordaintzen dugu. Honetaz apate, txapelketa antolatzen duen klubak arbitroa ere ordaindu behar du. Urtean zehar dirutxoa ateratzen zaigu.

Nola antolatzen dituzue taldeak, entrenamenduak?

Petanka-klub hau bigarren mailakoa da, Euskadiko Federazioak arazoak dauzkalako lehenengo kategoria emateko. Senior kategoriakoak gara, senior maskulinoa eta senior femeninoak. Andrazkoen taldeak oso maila ona dauka, Espainiako txapelketarako lehenengo klasifikatua baita.

Txapelketak egiten dituzue?

Bai, asko. Federatuok hiru txapelketan hartzen dugu parte: klubak antolatutako torneoak, Petanka Federazioak antolatutako Euskadiko Txapelketa eta Espainiako Txapelketa, eta Bizkaiko Federazioak antolaten duen Euskal Liga.

Gainera, urtero federatuek eta ez federatuek parte hartzen dute bi torneotan: San Antonioko eta Etorbideko jaietan egiten direnak.

Besterik gaineratzeko?

Bai. Euskadiko pistarik onenak dauzkagula esan behar dugu. Eta jende gaztea falta zaigun arren, espero dugu gure federaturik gazteenek (8 hilabete eta urtebetekak) erreleboa hartzea.

MUGARRI



Aurtengo martxoaren 2an zabaldu zituen ateak MUGARRI Gazte Etxeak. Mugarrri Gazte Etxea Harribide Fundazioak dituen proiektuetariko bat da, Ludoteka eta Eskolako Laguntzarekin batera.

Zer da Mugarrri?

Etxebarriko gazteak bilduko dituen Etxea da. Bilgune hau 14 eta 30 urte bitarteko gazteei dago zuzendua, gazteek euren Astiaz goza dezaten eta aldi berean euren garapena aberas dezaten.

Leku hau komunikaziogunea eta informaziogunea izango da. Bertan gazteentzako ikuskizunak, egitarauak eta hainbat zerbitzu bultzatu eta gauzatuko da.

Zein zerbitzu eskaintzen dira?

Gazteentzako Informazio Bulegoa. Informazioa eta aholkularitza eskaintzen digu hainbat arloren gainean: hezkuntza, lana, kultura eta aisialdia, osasuna eta bizitza soziala.

Ikastaroak eta tailerrak: sukaldaritza, graffitia, kitarra, eta abar luzea.

Ekintza desberdinak egiteko gelak: ikasgelak, bilera gela, ordenadore gela, bideo gela.

Topagunea. Bertan aldizkariak, mahai-jokoak ditugu, baita musika entzuteko aukera ere.

Non dago Mugarrri? Eleizarako sarbidean, 2 zenbakian.

Noiz dago zabalik? Astelehenetik ostiralera arratsaldeko Setatik aurrera.

Larunbatetan goiz eta arratsaldez.

Igandeetan arratsaldeko Setatik aurrera



Etxetik hur-hurrean duzu aukera aparta. Disfrutatu nahi baduzu, egizu bueltatxo bat, harrera beroa egingo dizute eta.

BARANDIARAN IKASTETXEA

Zenbat irakasle daude?

Guztira 18 baina denok ez gara plazadunak. Urtero-urtero 7 edo 8 irakasle berri etortzen zaizkigu eta horrek kezkatzen gaitu proiektuak aurrera eramateko oztopoa delako eta esfortzu handia egin behar dugulako.

Zenbat haur? Eta zenbat gelatan?

Orotara 152 haur.

11 gela daude: bi urtekoentzako bi gela, haur hezkuntzan 3 gela eta lehen hezkuntzan 6 gela; hau da, gela bat maila bakoitzeko.

Etxebarri handitzen ari da, gero eta haur gehiago dago. Zer aurreikusten duzue?

Bai, Etxebarri handitu da eta etengabe handitzen ari da. Orain ez daukagu leku arazorik baina etorkizunean ez dugu haur guztientzako lekurik izango.

Datorren ikasturterako haur askok egin duela aurrematrikula entzun dugu. Arazo izan daiteke?

Datorren ikasturterako 31 haur inguruk egin du aurrematrikula baina haur gehiegi dira, 18 besterik ezin ditugu onartu.

Guk lekua badaukagu baina ez digute beste irakasle bat kontratatzen uzten.

Haur horien gurasoek zer diote?

Haur horien gurasoak mugitzen ari dira: udaletxera joan dira, kartelak jarri dituzte herrian zehar, Euskal Departamentura joan dira baina Eusko Jaurlaritzak ez du onatu.

Horrelakorik gertatu da beste inon?

Bai, hainbat lekutan baina beti eskola publikoetan.

Zer iruditzen zaizue Hezkuntza eredu?

LOGSEk dioenarekin ados gaude baina PPK ezarri nahi duen kalitatearen legearen kontra gaude.



Gema Izagirre eta Txema Redondo
eskolako zuzendaria eta Ikasketa burua



ETXEBARRIKO UME EUSKALTEGIA

AUPA!!!

kaixo denoi:

AUPA!!!

Etxebarrin kokatua dagoen umeentzako euskaltegiaren izenean hitz egitera gatozkizu: Orain dela urte batzuk sortua izan zen Euskaltegi honen helburua euskara irakastearena da, eta zelan ez, jendea euskalduntze prozesuan sartzerantz animatzea. Ume-Euskaltegiak bere lehenengo pausoak ematen hasi zenetik gaur egunera arte euskararen egoera dezente hobetu da, umeei entzun besterik ez dago; gero eta euskera maila hobea daukate.

Etxebarrin, pixkanaka bada ere, gero eta euskera gehiago entzuten hasi gara eta egoera hori indartu beharra dugu gure hizkuntza galdu ez dadin.

Euskaltegi honetan berritze prozesu bat egiten hasiak gara umeak gaur egun zer behar duen kontuan hartuz; irakasle egokiak hautatuz (gazteak, magisteritzako ikasleak, Ega tituludunak, e.a) material egokiak erabiliz, umea euskara ikasten duen bitartean ahalik eta eroso sentitu dadin. Euskaltegiak etapa berri bati hasiera emandio, ilusio handia jarritz eta metodologia egoki bat erabiliz.

Klaseak urria - ekaina bitartean eskaintzen ditugu eta 6 - 14 urte bitartean dauden ume


guztiei eskainiak daude. Talde txikietan egiten dugulan, zortzi ikasle asko jota; horrela

30 kideko klaseetan baino errendimendu hobea lortzen da.

Euskararekin arazoak badituzu? Laguntza behar baduzu? Euskara ikasi gura baduzu? Zure seme-alabek euskararekin arazoak daukatela ikusten baduzu deitu iezaguzu.

ANIMA ZAITEZ!!!

APUNTATU!!!



EUSKARAK MEREZI DU

Euskaltegiak irailean 10 urte beteko dituenetz, orain dela 10 urte hementxe bertan ikasi zuen Joseba Perezi egin nahi izan diogu elkarrizketa. Gaur egun gure herrian euskara arloko zinegotzia izateaz gain Basauriko Udal euskaltegian irakasle dugu Joseba.

Euskal familia batekoa dugun arren bere aitonarengandik aitarengana bitartean euskera galdu egin zen eta horrexegatik hain zuzen, guztiz euskaldun sentitzeko ekin zion euskara ikasteari. Izan ere, bere lehenengo ikasketak gaztelaniaz egin zituen baina unibertsitatera heldu orduko gure euskaltegira etorri zen, EGA lortu eta Euskal Filologia ikasketak burutu zituen.

Berak kontatu digunez, bere betidaniko ametsa euskara irakaslea izatea izan da, eta honen harira, bitxikeria bat kontatu digu "behin, lagunekin autobusean nindoala, etorkizunari buruz hitz egiten hasi ginen, eta niri buruz aritzean guztiek irudikatzen ninduten euskaltegian lanean".

Euskarak bere bizitzan duen eragina erabatekoa da. Euskaraz komunikatzen da bai lagunekin eta baita senitartekoekin ere eta jo eta ke ari da euskara guztiengana hel dadin. Nahiz eta zenbait lagunekin gaztelerez aritu beharra izan, euren artean etengabeak izaten dira "euskerakadak".

Etxean batez ere bizkaieraz mintzatzen ohituta dago eta horregatik kontuz ibili behar du klaseak ematean esan nahi duena batueraz ondo adierazteko. Euskara ikasle zeneko garaia gogoratzean ez zuela zailtasun berezirik izan aipatu zigun, nahiz eta EGA frogaren atarikoak gainditzea kostatu kostatu zitzaion.

Josebaren ustez gaur egun ez daukagu aitzakiarik euskararen munduan ez murgiltzeko, aukera anitz baitago bai ikasi eta baita ikasitakoa praktikan jartzeko ere. Bere esanetan egungo bitartekoak zabalak dira, eta etorkizunari begira gure aldetik ahaleginak egiten baditugu geroa ziurtatuta dago.

Laburbilduz, euskararekiko loturak iraun dezan mugak ahaztu behar ditugu. Hona hemen bestela bere hitzak: "Euskarak ez dauka mugarik, beraz, ez zuek jarri. Segi aurrera, ez etsi"



EUSKALTEGIKO

IGARTUBEITI BASERRIA - AZPEITIKO TREN MUSEOA

Martxoaren 16an, euskaltegiak txango bat antolatu zuen, eta guk ezezik gure lagunek ere joateko aukera izan zuten. Autobusa hartu eta Gipuzkoa aldera abiatu ginen, Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria eta Azpeitiko tren museoa ikusi genituen.



BASERRIA

Igartubeiti baserria XVI.mendean eraiki zuten baina XVII.mendetik aurrera aldaketak egiten hasi ziren, ia-ia orain dela gutxira arte. Hala ere, baserria duela lau mende zegoen bezala ikusi ahal izan genuen.




SUKALDEA

Sukaldean aintzinako tresnak ikusi ahal izan genituen, adibidez: pertza, larazetik zintzilik, katiluak, edalontziak, platerak. Asko harritu gintuen sukaldean tximiniarik ez egoteak.



GANBARA


Ganbaran bildutako sagarrak eta artoak gordetzen ziren, arto-bizarrak koltxoiak egiteko erabiltzen zituzten, baita erretzeko ere!!



DOLAREA

Ganbararen erdian dolare handi bat ikusi genuen, urtean behin baino ez dute erabiltzen sagardoa egiteko.

I R T E E R A



DASTAKETA

Sagardoa nola egiten zuten entzun eta gero, baserriko sagardoa dastatzeko garaia heldu zen, bai sagardo goxoa!!



LOIOLA

Bazkaltzera joan aurretik Loiolan gelditu ginen hamaiketakoa egiteko eta Loiolako basilika ikusteko baina zoritxarrez itxita zegoen.



SAGARDOTEGIA

Asko ibili ondoren, bazkaltzeko ordua iritsi zen, nora joan eta sagardotegi batera, jakina !!! Bertan sagardotegiko menua dastatu eta txotx egin genuen.



AUTOBUSA

Arratsaldean Azpeitiko tren museora joan ginen, tren mota asko ikusi genituen, adibidez tranbia hau Zaragozaraino zihoan baina gu ez ginen haraino iritsi.

Azkenean benetako autobusa hartu genuen Etxebarrira itzultzeko.

IKAS KOMUNITATERANTZ...: ARABIAR KLASEAK



Ikas Komunitate hildotik jarraituz, San Antonio ikastetxeko ikasle eta gurasoak batera ekintza ugari gauzatzen ari gara, denon artean eskola hobetzea helburutzat harturik.

Aipatzen dugu hemen familien inplikazioa eta proiektu hau Komunitate osoan sortzen ari den ilusioa.

السباحية



المقادير

• قليل من الملح	• 1 كغ من الطوروس
• 250 غ من اللوز	• 500 غ من الجلجلان المحمص
• قليل من الزعفران الحر	• ملعقة كبيرة من النافع
• ليطران من الزيت للقلبي	• ملعقة كبيرة من القرقة مدقوقة
• 2 كغ من العسل	• كأس شاي من ماء الزهر
• كأس شاي من الزبدة المذابة	• 2 بيضات
• كأس شاي من الزيت	• نصف كأس شاي من الخل
• 2 أكياس من خميرة الحلوى	• قليل من المسكة الحرة
• الماء الدافئ	

الطريقة

في قضاة نضع الطحين . نحوف وسطه ونضع فيه اللوز المصق والمقشر المطحون + الجلجلان المحمص والمطحون - النافع - القرقة - ماء الزهر - البيض + الخل - المسكة الحرة - الملح - الزعفران الحر - الزبدة - الزيت - الخميرة. يخلط الكل جيدا مع الطحين وإذا لم تتجمع العجينة نضيف الماء شيئا فشيئا مع الدلك بالكفين حتى نحصل على عجينة متماسكة ولينة. نضع منها كرات صغيرة. نأخذ كل كرة على حدى ونمددها بالوراق جيدا. بعد ذلك تقطع إلى مربعات متساوية ضلعها 5 سنتيمتر لتقسم بالتساوية إلى 5 أصابع دون تشكيل المربع.

■ تطوى برقع الأصبع وترك الآخر. لتتحول إلى وردة توضع في أنية وتغطى بمنديل إلى نهاية العجينة وتقلى الحلوى في زيت حامية.

ملحوظة :
■ يجب أن يكون قلي الشبكية واحدة تلو الأخرى أي بالتتابع.

انظر الصورة

Iaz, "amets fasea" egiterakoan, zer nolako eskola nahiko genuke izatea azalduz, marrokiar talde batek bere desioa eta kezka azaldu zuen; hau da, beren seme alabentzako arabiar klaseak izatea euren nortasuna eta hizkuntza mantentzeko.

IKAS KOMUNITATERANTZ...: ARABIAK KLASEAK

Amets hau bete da.

Jamilek, arabiar irakasleak, dio azkar ikasten dutela eta guztiz motibaturik daudela.



Youssef, Zahira, Othman, Tamou eta David, gure eskolako ikasleak dira eta hizkuntzak ikasteko erreztasun haundia dute.

Euren amek, eskolak beren ametsari erantzuna emategaitik, ezkerturik, beren herriko eratako pasta goxo-goxoak egin eta guraso eta irakasleei eskeini zizkiguten.



KUKULLAGA ESKUBALOI TALDEAREN PROIEKTU BERRIA

Udal Euskaltegiak egindako gonbite atsegina aprobetxatuz, gustatuko litzaiguke ZEBARRI aldizkaria gure proiektu berriarentzako beste erakustoki bat izatea. Honela, espero dugu gero eta etxebarritar gehiagok egiten gabiltzan lana ezagutzea.

Lan honek bi helburu nagusi dauzka: Eskubaloia udal kirol zerbitzuaren beste eskaintza bat izatea eta,

- Etxebarriko ordezkari egokia izatea ahalik eta lehiaketa mailarik altuenean (Estatuko Ohorezko Mailara igotzea baino ez zaigu geratzen).

AURKEZPENA.

Bukatzen dabilen ikasturtearen hasieran, Kukullaga Eskubaloi Taldeak neskentzako Eskubaloi Eskola sortzea proposatu zion Udalari, hurrengo helburuak betetzeko asmoz:

- Etxebarriko neskei kirol hezgarria egiteko aukera eskaintzea, eta
- etorkizunerako kalitatezko eskubaloilariak agertzeko parada izatea.

Euskadiko Kirolaren Legeak adierazten duen legez: "Eskola-garaian egiten den kirola, funtsean, ikastetxeen bitartez egituratuko da, kirol klub eta elkarteetako ikasleen guraso-elkarteen lankidetzaren aktiboarekin".

Hau kontuan hartuta, Kukullaga Eskubaloi Taldeak bere laguntza eskaini zuen Etxebarriko ikastetxeetan ekipoak sortzeko eta eurekin lan zuzena egiteko, programa eratzeko, entrenatzaileak eta kirol zuzendaritza ipiniz. Sortutako egiturak bere jarraipena izango du Kukullaga Taldearen ekipoetan. Honela, neska guztiek eskubaloian segitzeko aukera izango dute, bai goiko lehiaketari begira edo orientazio jolasgarriago batekin.

Ondo ulertu zituen Udalak proiektu horren onurak eta, jarraitu baino lehen, hemendik eskertu gura dizkiogu bere interes eta laguntza.

EKINTZAREN EZAUGARRIAK.

Aipatutako Kirolaren Legearen mamia errespetatu gura dugu: "Programen helburuak hauek izango dira: ikasleei osotasuneko eskola-heziketa osatzea, ikasleen nortasuna modu orekatuan garatzea, gorputz eta osasun ezaugarri jakin batzuk lortzea, eta geroago kirola egiten jarraitzea ahalbidetuko duen prestakuntza ematea".

Ondorioz, proposatutako ekintzaren jiteak lehiaketazkoa baino gehiago hezigarria izan behar du, hau da, ez dugu helduen kirol ezaugarririk eskolara eron gura, eskubaloia nesken onurarako erabiltzea baino, beren garapena beteaz.

ESKUBALOIA UDAL KIROL ZERBITZU BIHURTzea.

Gure ustez, bai ekintza honen jiteak zein Kukullaga Eskubaloi Taldearen proiektu orokorrak, Udalaren laguntza merezi dute, udal kirol zerbitzuaren beste eskaintza bat bezala onartuta. Uste dugu onartze hau hurrengo arrazoiek justifikatzen dutela:

- bere giza-balorea, Etxebarriko neskentzako eskaintza izateagatik;
- bere garrantzia aisialdiko alternatiba bezala kirol ikuskizuna gustukoa duten herritarrentzat;
- kirola bultzatzeko faktorea da, hasten diren neskengan daukan eraginagatik;
- hezitzeko aukera baliogarria da (iritzien sormena, lagunkidetasuna, heziketa etikoa...);
- osasun azturak sortzeko laguntza ezinhobea da; eta
- Etxebarriko ordezkaria da kirol lehiaketan, irudi positiboa emanez.



KUKULLAGA ESKUBALOI TALDEAREN PROIEKTU BERRIA

ESKUBALOIAREN ANTOLAKETA OROKORRA.

Egitura:

	IKASTALDIAK	TALDEAK	IKASMAILAK
E S K O L A	Hastapena	Umetxoak 1	Lehen Hezkuntzako 3.
		Umetxoak 2	Lehen Hezkuntzako 4.
		Umeak 1	Lehen Hezkuntzako 5.
		Umeak 2	Lehen Hezkuntzako 6.
	Oinarrizko ikaskuntza	Gaztetxoak 1	D.B.H.ko 1.
		Gaztetxoak 2	D.B.H.ko 2.
Ikaskuntza	Kadeteak 1 (Bizkaiko Liga)	D.B.H.ko 3.	
K L U B A	Espezifikoa	Kadeteak 2 (Euskadiko Liga)	D.B.H.ko 4.
	Hobekuntza Eta Eskubaloï jolasgarria	Euskadiko Ligako Gazteak Eta Bizkaiko Ligako Gazteak	Batxilergoa
	Goiko lehiaketa Eta Eskubaloï jolasgarria	Estatuko Ligako Nagusiak Eta Euskadiko Ligako Nagusiak	

Pertsonal teknikoa.

- Prestakuntza pedagogikoa eta espezifikoa eskubaloian:
- Gorputz Hezkuntzan Lizentziatuak.
- Gorputz Hezkuntzan maisu espezializatuak.
- Lurralde eta Estatu mailako titulua duten entrenatzaileak.
- Kirol Zuzendaria programazioaz, ebaluaketa orokorraz eta entrenatzaileen gaurkotze iraunkorraz arduratzen da eta prestakuntza pedagogikoa eta espezifikoa du eskubaloian .

Neskentzako deialdiak.

- Minieskubaloï Txapelketa ikasturte honetako azken txanpan (maiatzean):
- "Minieskubaloïa Etxebarrin" txapelketa sortu genuen iaz, herriko nesken partehartzea bultzatzeko asmoz, Eskubaloï Eskolan sartzeko lehenengo urrats bezala. Aurten ere antolatuko dugu txapelketa, umetxoen ekipoaren jarduerari ahalik eta gehien eusteko, eta Bizkaian Minieskubaloïa bultzatzearen, ezaugarri horietako txapelketa bakarra da eta.
- Minieskubaloï partiduak domeka goizetan jokatu dira frontoian (maiatzaren 19an eta maiatzaren 26an). Etxebarriko ekipoak (1992 eta 93 urteetan jaiotako neskek osaturik) eta beste herrietako gonbidatuek partehartuko dute (Leioako Askartza Claret Ikastetxea, Elorrioko Lourdes Ikastetxea, Galdakaoko Urreta Ikastetxea eta Bilboko Loyola Indautxu Ikastetxea). Etxebarritar guztiak gonbidatzen ditugu txapelketa hau ikustera eta adin horietako neskak parte hartzera animatzen ditugu. (begiratu bukaerako kartela).
- Irailean ere aurkeztuko dugu eskubaloïa herriko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako hirugarren maila hasiko duten nesken artean.

Filosofia.

- Parte hartu gura duten herriko neska guztientzako eskola.
- Neska guztiez arduratzea (ahalmen handiko eta gutxikoak).
- Kirol formazioarekin doazen baloreetan hezitu (lagunkidetasuna, sakrifikatzeko ahalmena, etika...).
- Osasun azturak sortzea.
- Elebitasuna.

Enrique Diez

(Kirol Zuzendaria)

EUTSUNA TXOKOA

1999ko irailaren 20an EUTSUNA Elkarteak sortu zen Etxebarri Donezteben. Elkarte hau Patxi Bengoa enparantzaren 8. zenbakian dago eta 26 txokokide gazte eta ez hain gaztek osatzen dute.



Bere jaiotzaren arrazoiaren artean txokokide, lagun eta jendearen artean Euskal Herriarekin lotura duten kultur, kirol, gastronomia eta olgeta ekintzak sustatzea aipatu behar dira eta elkartzeko eta solaserako gune bat eskaintzea.

EUTSUNAREN zuzendaritza batzordea lehendakari, lehendakariorde, diruzain, idazkari eta lau bokalek osatzen dute, eta beraien bileretan erabakitzen dute zeintzuk ekintza burutu urtean zehar.

2001urtean gauzatutakoen artean Santa Ana eta Doneztebe jaietan parte hartzea, Mus txapelketa, Perretxiko erakusketa eta Olentzaroa aipatu behar dira besteak beste. Honetaz gain, urtero urtero txokokide eta bere lagunentzako antolatzen den bazkaria ere egin zen pasa den azaroan.

Aurtengo egitarauan mendi-irteerak, autobus ibilaldiak eta futbol, sukaldaritza, perretxiko eta antzeko gaien inguruko adituekin egingo diren bilerak azpimarratu nahi ditugu eta nola ez, Euskal Herriko nazioarteko sukaldaritza txapelketetan parte hartzea, sukalki, marmitako, makailao...eta abarretan.

Ekainaren 2an Karrantzarako irteera ere antolatu da, Ranero mendira igon, Pozalagua leizea eta El Carpin parke ekologikoa bisitatu eta egun pasarako aukera paregabea eskainiz.



GIDATZEN BADUZU EZ EZAZU TELEFONUZ HITZ EGIN

HARRY POTTER

IDAZLEA:

J.K. Rowling Bristol-en jaio zen 1965eko uztailaren 31n. Haurtzarora Ingalaterran igaro zuen baina ezkondu zenean Portugalera joan zen bizitzera. Handik gutxira dibortziatu egin zen eta sorterrira itzuli zen bere 6 hilabeteko alabarekin.


1990ean Harry Potter pertsonaia imaginatzen hasi zen eta 6 urte pasa eta gero liburua idazten hasi zen. Orain arte hauek dira bere libururik ezagunenak:

Harry Potter eta sorgin-harria

Harry Potter eta sekretuen ganbera

Harry Potter eta Azkabango presoak

Harry Potter eta suzko kaliza



ARGUDIOA:

Harry Potter umezurtza da eta bere osaba-izebekin eta Dudley lehengusinarekin bizi da baina ez da zoriontsua, ez dago pozik etxe horretan txarto tratatzen dutelako. 11 urte bete zituen egunean eskutitz bat jaso zuen. Howgarts eskolara joan behar zuen magia ikastera. Hogwarts eskolan lagun onak egin zituen eta etsaiak ere bai. Han konturatu zen azti handi bat zela.

IRITZIA:

Oso liburu ona da. 10 urtetik gorakoek irakur dezakete: nerabeek, gazteek, helduek, adinekoek... Liburu honetako pertsonaiak bereziak eta magikoak dira. Gauza asko gertatzen dira: batzuk, barregarriak; beste batzuk, misterioitsuak baina den-denak interesgarriak. Jendeari asko gustatzen zaizkio bere pertsonaiak (sorginak, erraldoiak, mamuak...) eta bere mundua; izan ere, beste mundu batean sartzeraz gonbidatzen gaitu.

liburuarekin pelikula bat egin zuten. Liburua ez bezala, edonork ikus dezake. Aipatu behar da pelikula luzeegia dela 3 ordu irauten duelako. Hala eta guztiz ere, oso entretenigarria da.



IGARKIZUNAK

- 1• Atzean bi zulo, aurrean bi punta. Zer da?
- 2• Gona motz gingila luze. Zer ote da?
- 3• Zulo bitan kristal bi. Zer da?
- 4• Txiki-txikiak dira baina dena txikitzen dute. Zer dira?
- 5• Aita handia, ama latza, umea beltza. Badakizu zer den?

*betaurrekoak
kanpaia
gaztaina
artaziak
hotz-haginak*

TXISTEA

Jose eta Tomas bi agure dira, kalean elkarrekin topatu eta hitz egiten hasi dira:

-Zer gertatu zaizu masailean? Zelako ubeldura daukazun!

-Viagra hartzen dudalako.

-Baina, Viagra oherako da, ezta?

-Bai, bada horregatik! Goizero emazteak masailetik hartu eta esaten dit: ene, nire matxoote...!!

PURRUSALDA

TRIKIMAILUAK



ARROPATIK TXIKLEA KENTZEKO

Inoiz arropan txiklea itsasten bazaizu, izotz zati bat hartu eta arropa azpian ipini behar da. Minutu batzuk pasa eta gero, txiklea arazorik gabe kenduko dugu. Ondoren garbitu betiko moduan

LAPIKOKOAK GOXO-GOXO

Egokariak, hau da, dilistak, babarrunak edo txitxirioak prestatzen dtugunean, hobe da egosi eta gero gatza botatzea, ez lehenago. Horrela ez dira gogortuko, oso goxo geratuko zaizkizu, egin aproba!



OLIO MANTXAK KENTZEKO

Janziak siku egon behar du, xaboa bota behar dugu eta gero eskuz ondoondo igurtzi. Hori egin ondoren, garbigailuan sartuko dugu eta ea zortetik daukagun!!! Batzuetan birritan edo egin behar da guztiz kentzeko.



LANDAREAK EZ ZIMELTZEKO

Oporretan landareak zaintzea oso erraza da, ez esan auzokoari edo lagunei, ez da beharrezkoa. Hauxe egin eta kitto: pertsianak erdi zabalik utzi eta landareak aurrean, jakina. Lore ontzien azpian plater handietan ur asko jarri eta horrela landareak apurka-apurka beharrezkoa hartuko du.



AURPEGIRAKO MASKARILLA

Azal polita izan nahi baduzu, maskarilla honek azal koipetsua garbitzeko balio du. Baso bat ur legamia bota ur epeletan eta ondo nahastu ore lodia lortu arte. Prest dagoenean hogeit bat minutuz eduki aurpegian, egin eta kontatu!!!

ERREZETAK

PASTA-ENTZALADA

Hona hemen oso plater goxoa bero handia egiten duenean!!

Osagaiak Pasta, arrautzak, txaka, olibak, tipula, letxuga, tomatea eta atuna.

Zelan: pasta egosi eta gero, osagai guztiak gehitu, zerrenda honetatik kanpo daudenak ere bai. Irudimena landu eta bota nahi duzun guztia.

On egin!!!

TXERRI SOLOMO GAZI-GOZOA

Osagaiak: Kilo eta erdi solomo, 200gr. bakan, bi porru, azenarioak, 3 piper gorri edo berde, baratxuriak, kipula, sagar bat, bi madari, dozena bat mahats eta 2 goilarakada olio.

Zelan: bota olio ta barazkiak lapikoan xehe-xehe eginda. Gorritzen denean sartu solomoa eta bakona gainean eta egin apur batean. Gero bota ardo zuria eta gatza eta hogeit minutuz eduki. Ondoren solomoa atera, barazkiak iragazi, fruta moztu eta lapikora, su bizian bost bat minututan. Solomoa hotz dagoenean, xerratan moztu, eta kitto!!!

FILLOAK

Osagaiak: 3 arrautza, litro bat esne, kilo bat irin, 6 goilarakada azukre eta goilarakada bat ezti.

Zelan: Dena ondo nahastu behar duzu irabiagailuaz, zartagina sutan jarri (olio tanta bat baino ez!). Apurka apurka goilarakada bat botako dugu ez itsasteko. Atera eta gero, azukrea bota eta jateko prest dago

Oharra: nahi baduzu, txokolatea, esnegaina edo marmelada bota dezakezu gainetik.

HOROSKOPOA



Aries

Gaur norbaitek deituko dizu. Dirua ez da poltsikoan gordetzeko, lagunak gonbidatu. Osasuna: gaur ez zara ondo sentituko



Taurus

Zure bikotearekin haserretu egingo zara. Espero ez dituzun gastuak edukiko dituzu. Jandako zerbaitek kalte egingo dituzu



Gemini

Gaur norbait berezia aurkituko duzu. Loterian ere zortea edukiko duzu. Osasunean berriz, kontuz bizkarrarekin



Cancer

Gaur zure bikotearekin apurtuko duzu. Hala ere dena ez da txarra izango eta zuk utzitako dirua itzuliko dizu. Zure familian norbait gaisotu egingo da



Leo

Norbaitek eskua eskatuko dizu eta gainera diru asko opari egingo dizu. Zure gaixotasuna ahaztu, laster osatuko zara.



Virgo

Maitasunean zortea edukiko duzu, baina diru aldetik larri ibiliko zara. Gaur ez zara ondo sentituko



Scorpio

Maitasuna aurkitzeko denbora asko behar izan duzu, oso itxia izaten zara. Telebista gutxiago ikusi behar duzu eta kirol gehiago egin. Ez aurreratu hainbeste eta gastatu dirua zure lagunekin. Barruan pertsona ona zara, zeure burua ezagutzera eman



Capricornius

Aurtengo urtea oso ona izango da zuretzat. Ez duzu diru asko edukiko baina zure osasuna zoragarria izango da eta zure harremanetan, bai lagunekin bai familiarekin, ez duzu arazorik edukiko. Gozatu eta irten kalera jendea ezagutzera.



Piscis

Bizitza ez da hain beltza. Zure osasuna ona izango da. Lanean pertsona maitagarria zara. Aurten zure familiako pertsona batek osasun arazoak edukiko ditu, baina guztiz osatuko da. Positiboagoa eta zorionsuagoa izango zara.



Libra

Zure bikotearekin bidaia bat egin ezazu, bientzat ona izango da. Bizkarreko mina edukiko duzu, medikuarengana joan. Loteria erosi, zorte ona edukiko duzu eta. Lo gehiago egin



Sagittarius

Zure bizitzako maitasuna aurkituko duzu. Zure osasuna primerakoa izango da, baina kontuz alkoholarekin. Gastu handiak izango dituzu eta aurreztu. Kirola egin




Aquario

Kontuz. Zure bikoteak adarrak ipiniko dizkizu. Gainera buruko mina edukiko duzu. Asmatu zergatik. Hala ere diruarekin zorte handia edukiko duzu. Alokatu detektibe bat.

Exprésate
en euskera,
también en verano

Euskararik
freskoena
lortuko duzu



EUSKARA BULTZATZEN!

ETXEBARRIKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK EUSKARA IKASTEKO

- ETXEBARRITARROK: matrikularen %50 berreskuratu dezakezue
- GURASOAK : matrikularen %100 berreskuratu dezakete.
- ASTIALDIKO BEGIRALE/KIROL ENTRENATZAILEAK: matrikularen %100 berreskuratu dezakete.
- UEU-n (Udako Euskal Unibertsitatean) egindako ikastaroak diruz lagunduko dira.

EUSKARA BULTZATZEKO DIRULAGUNTZAK

Elkarteek euskararen erabilera bultzatzeko aurkezten dituzten egitasmoak diruz lagunduko dira. Merkatariek errotuluak euskaratzeagatik dirulaguntzak jasoko dituzte.

ARGIBIDE GEHIAGO:

Euskara Zerbitzuan
Bekosolo Parkea, z/g
94 449 50 43

e-posta: etxebarrieuszer@euskalnet.net



Etxebarriko Udala
EUSKARA ZERBITZUA

bbk =



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila
Euskara Sustatzeko
Zerbitzua

**Diputación Foral
de Bizkaia**
Departamento de Cultura
Servicio de Promoción del
Euskara